

JARDUERAREN EBALUAZIOA

Martxoan ondo hasteko, Giza Baliabideak Atalak mezu elektronikoko bat bidali du, eta mezuan, esteka bat agertzen da langile bakoitzaren jardunaren ebaluazioaren berri izateko.

Sistemaren beraren aldebakartasunaz gain, Arloko zuzendariak nahi dutena egiten dute beren menpekoei eta menpekoen menpekoei buruz egindako txostenekin.

Hori dela eta, zenbait gai gogorarazi nahi ditugu:

Behar izanez gero, helarazi Giza Baliabideak Atalari ebaluazioarekiko dituzuen desadostasunak.

Aren GUTXIENKO zenbatekoa % 20koa da (ez gehienezkoa batzuek sinestuarazi nahai duten arren).

Cren GEHIENEZKO zenbatekoa % 10koa da.

Ck jarrera txarra inplikatzan du.

Hitzarmenaren 1. X.G.-aren arabera "entitateak bere postutik kenduko du bere jardura bi urte jarraian C hizkiz ebaluatua izan den pertsona".

Eta beti egiten dugu galdera bera: motibazioa bultzatzeko edo galarazteko tresna da?

OPORRAK

Aurten ere, oporren gaiak eragina izan du langileen arteko harremanetan, gure nagusien presengatik eta ezarpenengatik. Aproposena langileen artean ados jartzea izan arren, hori ezin denean, enpresak konpondu behar ditu arazoak. Kontuan hartu beharreko datuak:

Finkatutako mailaren arabera ezartzen da taulen ordena.

Escola adineko seme-alabak edukitzeak ez du lehenetsunik ematen; aldiz, horien oporraldietan oporrak gozatzeko eskubidea ematen du..

Ez da berariazko betebeharra oporrak abuztuaren hartzea. Bulegoa ixten bada, erdia hartzea behartu dezakete gehienez. Norberak hautatzen du beste erdia noiz hartu (normalean, epaileek finkatzen dute).

Bulego edo departamentuko antolaketa ahalmentzen badu **ez dago librantza egunak oporrekin batera hartzeko debekurik.**

Eta ez ahaztu **abenduan oporrak hartzeko debekurik ez dagoela.**

Eta, batez ere, **ERABIL DEZAGUN SEN ONA**, nahiz eta, itxura denez, arduradun batzuek ez dakite zer den hori.

KUTXABANK SAREAREN SALMENTA RANKINGA

Kutxabank Sareko guneren batean (ez dakigu noraino orokortuta dagoen gaia) nagusiek direnei eta ez direnei bidali diete kudeatzailer guzti-guztien salmenta rankinga.

Bitxia da enpresa honek ezaugarri duen gardentasun falta kontuan hartuta ez egotea arazorik gai horiek jakinarazteko. Edo, zer izango da, langileen gaiak zabaltzeak ez duela garrantzirik?

Duela hilabete aurkeztu genion kexa Giza Baliabideak Atalari, uste dugulako jardura hori gutxienez zuhurtziagabea dela eta egileen gaitzespena merezi duela.

Ez dugu berririk izan oraindik. Oso kezkatuta egongo dira folletoiarekin.



SINADURA BILKETA

Badirudi Gipuzkoako sukurtsaletan lan egiten dugu-nok berezkoa dugun "trakestasuna" dela eta zer gerta ere, sare honen arduradunek erabaki dute idatziz eta eskuz sinatuta jasotzea transferentziak telefono edo posta elektronikoko bidez egiteko debekua.

Horregatik, mezu elektronikoko bat bidali genien arduradunei, eta azalpenak eskatu genizkien eta jardura hori desegokia zela jakinarazi genien. Erantzuna zeharka iritsi zaigu, Bilbo bidez: "gehiago pentsatu beharko zuten agian", "atzera egingo dute", eta abar. Ematen du erosoago sentitzen direla aginduak ematen, azalpenak ematen baino.

Amaitzeko, langileei beldurra sartzea ez da ezer profesionaltasunez kudeatzeko modua; ezta ez entzunarena egitea ere.

OTSAILEKO NOMINA

KutxaCASen urteroko biltzarra (lehenengo Kutxatik datozenen aseguru medikoa) urtarilaren 26an egin zen, eta 2015erako kuoten igoera onartu zuen: 35 € arte hilabete/bazkideko.

Horregatik, otsaileko nominan jaso da kuotaren areagotzea, baita urtarriketako ere.

BESTE BAIMENAK (LANGILEEN ESTATUTUTAKOAK)

Hitzarmen Kolektiboan, Baimenen Atalean, legea hobetzen dutenak daude jasota soilik, baina gogorarazi nahi dugu Langileen Estatutuaren 37. artikuluan jasotakoek indarrean jarraitzen dutela.

Esate baterako: egun bateko baimena ohiko bizilekua aldatzeagatik.

Zalantzarik baduzue, deitu lasai.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK (beste bat)

ASPEMeko gure lagunek zartada jaso dute Leonen nahiz Valladoliden, emaitzen aurkapena baztertu baitu epaileak.

Leongo ordezkaria PK-koa zen, eta inork ez zuen lanik hartu gu ekitaldi judizialera deitzeko.

Agian, hori konpentsatzeko, Valladoliden, non ez dugun zerikusirik, ASPEMek erabaki du "PIXKANAKA KASKARIREN" aukako demanda zabaltzea, gaia apirilaren 17an eta maiatzaren 25ean lantzeko berriro.

Amarru bat da edo lekuz nahasi dira?

Bidebatez, Zaragozan epaileak hauteskunde sindikalak bertan behera bota ditu.

ETA PRENTSAURREKOAN...

Bankuko emaitzak aurkezteko prentsaurrekoan, presidenteak adierazi du harritu egin dela langileen "heldutasun profesional miresgarriarekin". Badirudi langile taldean dagoela Jainkoa ere; izan ere, zera ere esan zuen: "ne-gozioa ez da ahuldu, Jainkoari esker".

Gainera, hau ere adierazi zuen: "presidente hau pertsonalki gogorra izango da beti gure erakunderako ezarriko ditugun eraginkortasun helburuekin". Ez dakigu zer esan nahi duen, Google Translator tresnak ez baitu lortu esaldi hori itzultzea.



Gipuzkoa: Jose Montero (Monti) - Carlos Elorza - Aitor Belosillo - Koldo Sulibarria - Iker Antolin - Arturo Llorente - Amaia Murguiondo - Iñaki Zubimendi - Borja García - Joserra Tolosa - Naiara Ugarte - Iñaki Zabala - Olatz Legarda-Ereño - Iker Ozteta - Rubén Santos
Araba: Diego Barrero - Chema Fdez de las Heras - Julio Hidalgo
Barcelona: Jordi Varela - Eduardo Azurza - Cristina Forcadell - Nelly Carrión - Ana Ortega
Burgos: Iván Pérez
Pontevedra: Anxo Giménez
León: David Astiarraga
Cantabria: Nieves Cobo
Zaragoza: Miguel Gómez